

# KANTARITALDE

## DONOSTIARRA-RI



### Batzar zuzendariyaren buru edo Dianagusia.

DIANAGUSI JAUNA:

**J**AKIÑAN gañian arki gera zenbateraño goratu dezuten zuen agazapi edo bandera; badirudi ortik oneratu dirala zuentzat Uri ortan oparo luzatzen dituzten zorionak, bada zuen anai Gipuzkoako Donostiar eta euskaldunen biyotzak pozaren bidez irazekirik suaren chingarrak goraño zabaltzen dituztela daude, orain dala urte batzuek Lasalaren Plazachoan sututzen zuten zezenaren burukurpill eta aldamenetako ziri suzkuak bezela.

*¿Nola ez bada, orrenbeste zorioneko gorantzak Donostirako jasoaz bazabiltzate?*

Zuen artian arkitutzen da  
irudiz gure biyotza,  
posezko ari mufur batekiñ  
lotuta dagon bildotsa;  
noiz nai sutsua dalarikan da  
motel, geldiya ta otza,  
nola dan zuen bular chokotik  
eztarrirutzen dan boza.

*Jaunak: barkatu errenkada abekin utsegiten badute borondate osoaz au egiten dutenai, eta jakiñan gañian jartzen zaituztegu, zuek jasotzen dituzuten zorion ugariyen zaticho bana gure biyotzeratu dala, zeren opa dizkitzuten audiyaguak ondoren izenpez agertzen diran Euskaldun jator.= Juan Ignacio Uranga, Juan Zabala Gainza, Luis Bastida, Julio Zabala Uzkudun, Felipe Casal,*

Antonio Ezponda, José Ezponda, Venancio Ezponda, Ramón Guelbenzu, F. López Alén, José Arruti, José Marino Arrieta, Eduardo García Serapio Aristizábal, Pablo Casal, Manuel Uranga, José Ayestarán, Ramón Astudillo, Modesto de Aramburu Antonio M. Baroja, Luis Ayestarán, Avelino Ayestarán, Juan Ayestarán, Sinforoso Moreno, Eduardo B. Barea, Francisco Zabala Uzcudun, Antonio Otegui, Juan José Macazaga, José Antonio Igartaburu, Bruno Sopelana, Luis Ubeun, Cayetano Camio, Luis Aristegui, José Zapirain, Ramón Zapirain, Sebastián Ugarte.

Donostiyan, Garagarrilla-ren 9-an 1910-an

